

Ozeano Artikoa, gero eta azidoagoa

GAUZA JAKINA DA isurtzen dugun CO₂-aren zati handi bat itsaso eta ozeanoek xurgatzen dutela. Xurgatutako karbono dioxido horren parte bat azido karboniko bihurtzen da, baina itsasoko beste elementuei esker azido horren portzentaje handi bat neutralizatu egiten da, edo beste era batera esanda, ez du eraginik itsasoan.



U.S. GEOLOGICAL SURVEY-CC BY

Ozeano Artikoan ez da hala gertatzen, ordea. Batetik, ur geza asko isurtzen ari da izotza urtzearen eraginez, eta bestetik, uda partean, urtze horrek berak ozeanoaren tamaina handitzea eragiten du; ondorioz, karbono dioxido gehiago xurgatzen da.

1960. urtetik gaur artean Artikoko uren pHa 0,02 txikiagotu da hamarkada bakoitzeko, eta ondorioak erabat ezagutzen ez badira ere hainbat espezie desagertzeko zorian daudela uste da, batez ere kanpoko hezurdura dutenak, koralak adibidez. Gertatzen ari dena itzulezina da, Richard Bellerby ikerlari norvegiarren ustez. ■



Eulien begiak, etorkizuneko optikaren eredu

JJ HARRISON-CC BY SA



UGAZTUN ASKOREN BEGIAK lente batez osaturik daude, eta optikan garatu izan diren tresnetan eredu hori erabili da. Haatik, munduko animalia ugarienek, intsektuek eta artropodoek, begi konposatu bidez ikusten dute.

Begi horiek milaka begitxo dituzte, eta begitxo bakoitzak eremu txiki bat baino ez du proze-

satzen. Begitxo guztiak elkarrekin konektaturik daudenez, guztien artean lortzen duten ikusmena izugarria da, gurea baino askoz hobea.

Illinoiseko Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde batek begi konposatuaren prototipoa aurkeztu du *Nature* aldizkarian, eta horrela teknologia berri bati bidea zabaldu diote. Beraiek ere ez dira ausartu mugez hitz egitera. ■



Robotak edozertarako

80ko hamarkadan leku gutxi batzuetan baino ez zen ikertzen roboten inguruan. Nik lehena Arrasaten dagoen Ikerlan zentroan ikusi nuen. 30 urte hauetan robotikan aurrerakada nabarmena izan da, ondoko diaporaman ikus daitekeenez.

ttiki.com/50260
(Frantsesez)

Erleak babesteko neurriak hartuko ditu Europar Batzordeak

Azken hamarkadan erleen kopuruak beheranzko joera eduki du. Horren zergatien artean, liztor asiarra gero eta ezagunagoa dugu Euskal Herrian, baina Europar Batasunean pestizida neonikotinoideek eragiten dute kezkarik handiena. Europar Batzordeak pestizida horietako hiru partzialki debekatuko ditu bi urtez, harenganako susmoak baieztatu edo baztertze asmoz.

ttiki.com/50261
(Euskaraz)

Bikote egonkorak, gizentasunaren jatorrietako bat

Ikerlari talde bat herri jakinduriaren baieztapenetako bat frogatzen saiatu da, hau da, bikote egonkorretako kideek –ikerlariak ezkonduetako bikoteak baino ez dituzte aipatu– gizentzeko joera dutela. Badirudi bikotekideek ez dutela grina handia izaten beste inor erakartzeko, eta ondorioz ez direla pisuaz kezkatzen.

ttiki.com/50262
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16